

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Kontratazio-mahaiak osatzea – Tokiko Gobernu Batzarra kontratazio-organo gisa –. EHBILDU udal-talde politikoak aurkeztutako idazkiaren ostean osaera aldatzea

2019ko uztailaren 12an, Tokiko Gobernu Batzarrak kontratazio-mahaiak osatzeko erabakia hartu zuen, Tokiko Gobernu Batzarra kontratazio-organo gisa agertzen den kasuetarako. Erabaki horren osaera aldatu egin da Tokiko Gobernu Batzarraren ondorengo ebazpenen bidez.

Kontuan hartu da EHBILDU udal-talde politikoak 2021eko urriaren 13an aurkeztutako idazkia (sarrera-erregistroko 13851 zk.).

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 23. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta alkate-udalburuaren eskumenak eskuordetzeari buruzko 2019ko uztailaren 1eko 1611 Dekretua oinarri, Tokiko Gobernu Batzarrak hau

EBATZI DU

Lehenengoa. Aldatzea kontratazio mahaia eratzeko 2019ko uztailaren 12ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, Tokiko Gobernu Batzarrari berari kontratazio-organo izatea dagokion kasuetarako, EHBILDU udal-talde politikoak 2021eko urriaren 13an aurkeztutako idazkiaren ostean (sarrera-erregistroko: 13851 zk.).

Aurrekoaren ondorioz, honako osaera hau izango du Tokiko Gobernu Batzarrari dagokion kontratazio mahaia:

– Lehendakaria:

Alkate-udalburua edo haren eskuordetza jasotzen duen funtzionarioa.

– Mahaikideak:

A) EAJ/PNV udal-talde politikoaren ordezkaria:

– Titularra: Joseba Amondo Escuza.

– Ordezkoa: Ander Larrínaga Saiz.

B) EH BILDU udal-talde politikoaren ordezkaria:

– Titularra: Santiago Hernández Saez.

– Ordezkoa: Lamia Arcas Nogales.

C) Udalbatzako idazkari nagusia edo haren eskuordetza jaso duen funtzionarioa.

D) Udalbatzako kontu-hartzaile nagusia edo haren eskuordetza jasotzen duen funtzionarioa.

E) Kontratazio publikoko teknikaria edo bere eginkizunen eskuordetza hartzen duen funtzionarioa.

F) Teknikari bat, kasuan kasuko kontratuaren gaiaren arabera.

– Mahaiko idazkaria:

Udalbatzako funtzionarioa.

Nolanahi ere, kontratazio-mahaien deialdiak jakinaraziko zaizkie ordezkariarik ez duten udal-talde politiko guztiei, jendaurrean jarduten den kasuetan bertaratu daitezten. Batzar horietan, bertaratuko diren eta ordezkariarik ez duten Udalbatzako kideek hitza hartzeko eskubidea izango dute, baina ez botoa ematekoa.

Bigarrena. Bere horretan uztea Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 12ko bilkuran Tokiko Gobernu Batzarra kontratazio-organoa den kasuetan kontratazio mahaiaren funtzionamenduari buruz hartutako erabakia, bere osotasunean, honako eduki honekin:

Ahalmenak: kontratazio mahai honi dagokio Laudio Udalak egindako kontratuak, administratiboak zein pribatuak, prestatu, adjudikatu eta betearazteari buruzko ahalmenen multzoa, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2018 Legean, aplikagarri diren gainerako arauetan edota, hala badagokio, horien ordezeko araudian adierazitakoaren arabera.

Funtzionamendu-arauak: nolanahi ere, kide anitzeko organo gisa jarduteko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete beharko du.

Eguna, ordua eta tokia: Tokiko Gobernu Batzarrari dagokion kontratazio mahaia egiteko honako egun eta ordu hauek finkatzea:

- Asteartea, 12:30etik aurrera.
- Ostiraletan, 12:30etik aurrera.

Ondore horretarako, Udaleko arlo eta zerbitzu guztiek dute barne-aplikazio bat, eta bertan kontsultatu ahal izango dira beste arlo eta udal-zerbitzu batzuek kontratazio kahaia egiteko gordetako orduak. Aretoa eta ordua telefonoz erreserbatu beharko dira 808 zenbakira deituta edo, ausentzia kasuetan, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ).

Tokiko Gobernu Batzarrari dagokion kontratazio mahaia 1. solairuko batzar aretoan egingo da beti, salbuespenezko egoeretan izan ezik eta, betiere, beste nonbait izatekotan, alde aurretik jakinarazita.

Hirugarrena. Aditzera ematea erabaki hau udal-arlo guztiei, baita mahaikideei ere (titular zein ordezkoei). Halaber, erabaki hau kontratazio organoaren profilean eta ALHAOn argitaratuko da, baita Udalaren webgunean ere.

Laudio, 2021eko urriaren 25a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE